

Gure enpresak "Healthy Fast Food", janari osasuntsua eskaintzen du. Hori dela eta, denbora gutxi duten pertsonei zuzenduta dago, batez ere lan egunetan langileei eta ikaslentzako izango dira gure produktuak. Jatetxetik hurbil bizi den jendea ere gure bezeroak izatea dugu helburu. Beraz asteburuetan elikadura osasuntsua izatea helburu bezala dutenentzako egongo da zuzenduta, TURRA jatetxetik sustatu nahi dugu familia guztia helkarrekin etortzea jatera asteburuetan. Baina osasuntsu jan nahi duten edozein pertsona enpresa honetan jan ahal dute. Helburua zera da, presaka dabilen langile batek lanetik ateratzean beste leku batera joan behar izatekotan oso azkar, jan ez beharreetan edo edozein zabor janari jan beharreetan, zerbitzu osasuntsu hau eskura izatea ahalik eta lasterren lortzeko. Gainera, gosari, bazkari, merienda edo afariak egin ahaliko dira, hau da, edozein momentutan eskatu ahal izango da janaria.

Horregatik, gure helburua ere, gazte-taldean ohiturak aldatzea da. Esate baterako, koipe askoko eta kalitate txarreko produktuak jateko elkartu beharreetan arratsalde batean, janari osasuntsua jatea ere dibertigarria dela adieraztea eta azaltzea da. Beti erlazionatu dugu ongi jatea edo zabor janaririk ez jatea dieta moduko bat egitearekin, baina, ez du zerikusirik. Bizitza osasuntsu bat eramatearen eta momentu jakin batean dieta bat egitearen desberdintasunak anitzak dira. Bizitza osasuntsua eramatean, ongizatea lortzen du norberak, bai mentalki eta baita fisikoki ere.

Zaila zela badakigunez, produktuak ahalik eta erakargarrien egingo ditugu, azkenean, horrek bultzatzen gaitu zeozer erostera edo ez.

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

**ADINA:** Gure janaria gehien bat denbora gutxi dutenentzako zuzenduta dago, normalean denbora gutxi dituzten pertsonak langile naiz ikasleak dira. Horregatik gure janaria bereziki 17-50 urteen artean dauden pertsonentzako da.



**ERRENTA MAILA:** Esan dugun moduan gure produktuak kalitate handikoak izango dira, lehengaiak ekologikoak izango dira bereziki, gainera ingurunea zainduko dugu. Langileen lan baldintzak ezin hobekak izango dira. Nahiz eta langileak, ingurunea eta produktuaren kalitatea zaindu, gure helburua produktuak ahalik eta kalitate prezio onean saltzea izango da



**GENEROA:** Ez dago genero bereizketarik egongo gure produktuetan, baina, ohartzen gara azkenean gizarte honetan emakumeek gehiago zaintzen dutela haien elikadura gizonezkoek baino.



**ERLIJIOA ETA KULTURA:** Egia esan, gure produktuak edozein erlijioko pertsoneri zuzenduta daude. Hala ere, produktu gehienetan barazkiak egongo dira baina agian produktu batzuek txerriak izango dute edo beste haragi motaren bat agian erlijioso batzuek ezin dituztenak jan. Aukeratzeko baretate asko egongo denez erlijioa ez da izango arazo bat gure jatetxean. Izan ere, badakigu produktu batzuk adibidez “cous-cous” izanakoa, kultura mota batek gehien kontsumitzen duen osagaia da, eta gure jatetxean eskuratu ahal izango da.



**LOKALIZAZIOA:** Gure jatetxea populazioaren kopuru handiena mugitzen den leku inguruan jartzeko asmoa dugu. Agian gazteak elkartzen diren lekuetan edo enpresa handi baten ondoan, horrela, langileen kasuan, denbora handia ez izatekotan gure enpresa eskuragarri egongo da. Hala ere, garatzen den heinean, food-truck modukoa egitea pentsatu dugu, beste leku estrategiko batzuetan jartzeko.



600 € /mes

Sugerir un precio

Compartir

Favorito

120 m<sup>2</sup> Bajos 5 €/m<sup>2</sup>

Local en Calle de Domingo Beltrán de Otazu, El Pilar

Local con licencia de bar activa ubicado en la calle Domingo Beltrán, en zona Coronación, próximo al

Me gustaría recibir más información de este inmueble

Tu nombre



ES

